

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
29/2012	R3/2018	2018-4-9	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa. Ez-egoiliarra El-rik gabe.

**Ebazpena: 3/2018**

**Espedientea: 28/2012**

Vitoria-Gasteizen, 2018ko apirilaren 9an,

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero jauna batzordeburu eta Isaac Merino Jara jauna eta Javier Muguruza Arrese jauna batzordekide dituenak, honako hau

## ERABAKI DU

Gipuzkoako Foru Aldundiak Estatuko Zerga Administrazioan aurkeztutako gatazkaren inguruan, SAC SA sozietateari haren hornitzaile NTN-k jasanarazitako eta azken horrek ZAEAn sartutako 2010eko ekitaldiko balio erantsiaren gaineko zergaren kuoten bilketa eta kobrantzarako eskumenari dagokionez. Gatazka hori 28/2012 espediente-zenbakiarekin tramitatzen da, Gabriel Casado Ollero jauna txostengile duela.

## I. AURREKARIAK

1.- 2012ko irailaren 18an Arbitraje Batzordean erregistratu zen Gipuzkoako Foru Aldundiko (GFA) Ogasun eta Finantza Departamentuko Araugintza eta Aholkularitza Juridikoko zerbitzaburuaren idazkia. Idazki horren bidez gatazka planteatu zuen Estatuko Zerga Administrazioan, SAC SA sozietateari haren hornitzaile NTN-k jasanarazitako eta azken horrek ZAEAn sartutako 2010eko ekitaldiko balio erantsiaren gaineko zergaren kuotei dagokion 136.485,26 euroko zenbatekoaren bilketa eta kobrantzarako eskumenari dagokionez; eta azaltzen dituen aurrekariak eta zuzenbideko oinarriak gogoan hartuta ebazpen bat eskatzen du, eta ebazpen horren bidez Gipuzkoako Foru Aldundia eskuduntzat jo dadila 2010eko ekitaldiko BEZaren kuotak biltzeko eta kobratzeko, kuota horiek behar izan gabe jasanarazi zitzaizkiolako SAC SAri (...); ZAEAk, bestalde, kuota horien zenbatekoa ordainarazteko eskumena duen GFARI transferitu behar dizkio.

Espedientea	Ebazpena		Eragindako administrazioak		Kontzeptua
29/2012	R3/2018	2018-4-9	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa. Ez-egoiliarra El-rik gabe.

2.- Espedientetik honako gertaera eta inguruabar esanguratsu hauek ateratzen dira, gatazkaren ondorioetarako:

a) NTN-k 2004ko ekainaren 22an Espainian ordezkari-tzita-bulego bat nortasun juridikorik gabe eratzeko egiletsitako eskritura publikoan, ordezkari bat izendatzen da. Ordezkari horri ahalmena ematen zaio [eratzeko eskriturari lotutako ahalmenen zerrendaren arabera], «uneoro Bulego Nagusiak ematen dizkion jarraibideen arabera» honako eginkizun hauek egin ditzan: ordezkari-tzita-bulegoaren jarduerak zuzendu eta kudeatzea; bulegoaren lokalak muntatzeko beharrezkoak diren urratsak egitea, adibidez errentamendu-kontratuak sinatzea; ordezkari-tzita-bulegoaren ordezkari izatea administrazio publikoen organo guztien aurrean; banku-erakunde guztietan kontu korrontek, kreditu-kontuak eta aurrezki-kontuak ireki, mantendu eta ixtera; Bulego Nagusiak ematen dizkion jarraibide guztiak betetzea; aurreko guztia betetzeko beharrezkoak diren agiri guztiak sinatzea eta, bereziki, ordezkari-tzita-bulegoa irekitzeko eskritura publikoa; Bulego Nagusiak onarpena emanda, lehenago aipatu diren ahal guztiak edo horietako batzuk eskuordetzan ematea eta, halaber, emandako ahalak ezeztatzea (GFAk bere planteamendu-idazkiarekin batera aurkeztutako 14. dokumentua).

b) SAC SAk Gipuzkoan dauka bere helbide fiskala, eta 2009ko ekitaldian bere eragiketa-bolumena 7 milioi eurotik beherakoa izan zenez, Ekonomia Itunaren 27. Bat. Hirugarrena artikularen arabera, 2010eko ekitaldiko BEZa bere helbide fiskaleko foru administrazioak ordainarazi behar zuen. Xede horrekin, erakundeak foru-administrazio horretan aurkeztu zituen ekitaldi horretako hileko autolikidazioak (330 eredu), eta autolikidazio horietan sartu zituen NTN hornitzailearekin egindako eragiketetan (automoziorako pieza ekoizteko materialen hornidura) jasandako BEZaren kuotak, urtarriletik azarora bitartekoak, 128.174,55 €-ko zenbatekoarekin, eta abendukoak (390 eredu), 8.310,71 €-ko zenbatekoarekin, eta 14.155,29 € itzultzeko eskatu zuen; 2010eko ekitaldian, hornitzaile horrekin jasandako eta deklaraturako BEZaren kuoten zenbatekoa, guztira, 136.485,26 € izan zen.

c) Gatazkaren jatorri diren eragiketak 2010ean SAC SAren eta Alemaniako hornitzaile NTN-ren artean egindakoak dira. 2008ko ekainaren 5ean sinatutako gordailutze-kontratua betearazteko egindako eragiketa horietan, II.4 klausulan ezarrita dagoenaren

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
29/2012	R3/2018	2018-4-9	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa. Ez-egoiliarra El-rik gabe.

arabera, Alemaniatik egindako ondasun-emateak egiten dira, bezeroaren, SAC SAREN biltegietan gordailutzeko. Salgaiak Espainiako BEZaren aplikazio-lurraldera heltzen diren unetik, SAC SAREN biltegietan gordailutzen dira, baina hornitzaileak salgai horien jabe izaten jarraitzen du, harik eta Espainiako enpresak salgaiak biltegietatik atera eta bere ekoizpen-prozesuan (automoziorako piezak fabrikatzea) sartu arte (planteamendu-idazkiaren 15. eranskina). Hornigaiak NTN-k fakturatzen zituen, Espainian daukan establezimendu iraunkorraren bitartez, eta establezimendu horrek eragiketak batasunaren barruko ondasun eskuraketaren pareko eragiketa gisa deklaritzen zituen, horren ostean barneko ematea zetorrela.

d) GFAko Zeharkako Zergak Kudeatzeko Zerbitzuak SAC SAREN deklarazioak egiaztatzeko prozedura hasi zuen, zehazteko BEZaren kenkariak bidezkoak ziren ala ez, eta erakundeari errekerimendua egin zion, «dokumentazioa aurkez zezala, zehazteko ea NTN hornitzailearekin Gipuzkoan egindako eragiketak, 2010eko ekitaldikoak, zuzendu behar al ziren, BEZaren jasanarazpena bidegabea izan zitekeelako (...); izan ere, baliteke “establezimendu gabea” izatea, BEZaren araudian ezarrita dagoenaren arabera».

e) Errekerimendua erantzutearren SAC SAK aurkeztutako informazioa eta dokumentazioa eta NTN-k BEZa jasanarazita egindako fakturretan dokumentatuta dauden eragiketen mota aztertu ondoren, GFAko Zeharkako Zergak Kudeatzeko Zerbitzuak 2011ko ekainaren 14an erabakia hartu zuen, likidazio-proposamenarekin, honako hau oinarri hartuta: «Ezin da esan NTN-k BEZaren aplikazio-lurraldean jarduten duenik SAC SARI egindako ondasun-emate eragiketetan zuzenean esku hartzen duen establezimendu iraunkor baten bitartez, BEZaren 102/1992 Foru Dekretuaren 84. artikuluko 2. puntuan ezarrita dagoenaren arabera». Eta horren arabera ondorioztatzen duenez, «eragiketa hori, zeinaren bitartez Alemaniako enpresak bere ondasunak Zergaren aplikazio-lurraldera bidaltzen baititu, Gipuzkoako enpresak Itziarren daukan biltegitara, Batasunaren barruan ondasunak eskuratzea da, eta Zergari lotuta dago; Gipuzkoako enpresa eragiketa horren subjektu pasiboa da eta zerga likidatzeaz arduratzen da». Horrenbestez, Alemaniako hornitzaileak egindako BEZaren jasanarazpena bidegabea denez, «ezin da onartu SAC SAK 2010eko ekitaldian jasandako balio erantsiaren gaineko zergaren kuotak kengarriak direnik (...); eta zera «PROPOSATZEN DU: Zerga-egitatearen eta kuotaren zenbatekoa, barneko eragiketetatik ken daitekeen balio erantsiaren

Espedientea	Ebazpena		Eragindako administrazioak		Kontzeptua
29/2012	R3/2018	2018-4-9	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa. Ez-egoiliarra El-rik gabe.

gaineko zergarena, murriztea (...); balio erantsiaren gaineko zergarengatiko likidazioa egitea (...); 2010eko ekitaldiko abenduari dagokion itzulketaren zenbatekoa murriztea (...). Azkenean, zera jakinarazi zion: «Likidazio bakar bat egingo da, sartu beharreko kuoten guztizko kopuruaren eta itzuli beharreko zenbatekoaren arteko diferentziaren zenbatekoa; sartu beharreko kuota 122.329,97 € da». Egokitzen zituen alegazio eta frogak egiteko epe bat eman zion, eta epe hori igarotakoan «Zerbitzu honek behin-behineko likidazioa egingo du» (gatazkaren planteamenduaren 1. dokumentua).

Espedientean agertzen ez denez, erakundeak ez zuen alegaziorik aurkeztu, eta Zeharkako Zergak Kudeatzeko Zerbitzuko buruak ez zuen behin-behineko likidazioa agindu, 2011ko ekainaren 14ko Erabakian proposatzen denaren arabera. Hala ere, GFAk (planteamendu-idazkia, 2. orrialdea) nahiz ZAEAk (Alegazioak, 2/17 orrialdea) eta, azkenean, erakundeak berak proposamen hori likidazio-erabaki gisa kalifikatu zuten, eta halakotzat jotzen dute.

f) SAC SAren ustez, 2011ko ekainaren 14ko Erabakiaren bidez GFAk bidegabe deklaratu zuen NTN-k egindako BEZaren jasanarazpena, eta jasandako kuotak kengarriak zirela deklaratu zuen. Horrenbestez, 2011ko ekainaren 30ean idazkia aurkeztu zion ZAEARI, abenduaren 17ko 58/2003 Legearen (Zergei buruzko Lege Orokorra) 34.1 b) eta 221. artikuluetan eta abenduaren 28ko 37/1992 Legearen (balio erantsiaren gaineko zergari buruzko Legea) 89.Bost artikuluan oinarrituta, eta diru-sarrera bidegabean itzulketa eskatu zuen, 136.485,26 eurokoa; hau da, Espainian establezimendu iraunkorra duen NTN hornitzaileak jasanarazi zizkion BEZaren kuoten zenbatekoa [establezimendu iraunkor batek esku hartuta egindako barneko eragiketengatik]. Kuota horiek ZAEAn sartu ziren baina GFAk kengarriak zirenik ukatu zuen (ZAEAREN alegazioen I. eranskina). Gerora, 2011ko urriaren 28an, erakundeak ZAEARI eskatu zion itzulketa Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Ogasunari zuzenean transferentzia eginez egin zedila.

g) ZAEAk bidegabeko sarreraren itzulketaren eskariak NTN hornitzailearen BEZaren autolikidazioak zuzentzeko eskari gisa tramitatu zituen, 2010eko lau lauhilekoak eta 2011ko lehenengo bi lauhilekoak oinarri hartuta, eta 2011ko abenduaren 21ean erakundeari ezespren-proposamen batzuk jakinarazi zizkion; SAC SAren alegazioen ostean, ZAEAREN Madrilgo Ordezkaritza Bereziak proposamen horiek berretsi egin zituen 2012ko maiatzaren 17ko erabaki batzuen bidez eta itzulketak ezetsi zituen,

Espedientea	Ebazpena		Eragindako administrazioak		Kontzeptua
29/2012	R3/2018	2018-4-9	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa. Ez-egoiliarra El-rik gabe.

«ez delako frogatu establezimendu iraunkorrak esku hartu ez duenik (...)». 2012ko maiatzaren 21ean, SAC SAK Foru Aldundiari ezespren-erabaki horien berri eman zion.

h) 2012ko ekainaren 11n erakundeak itzulketa ezesteko erabakien aurka berraztertze errekurtsoa jarri zuen; berriro ere esan zuen egindako eragiketetan ez zuela establezimendu iraunkorrak esku hartu, eta zera alegatu zuen: «Alemaniako zentroan administrazio-lanez gain logistika-lanak ere egiten dira (ziren)». ZAEAK berraztertze errekurtsoak ezetsi zituen 2012ko ekainaren 27ko Erabakien bidez (erkatu honekin: ZAEAREN alegazio-idazkiaren VII. eranskina); ez da inon ageri erabaki horien aurka erreklamaziorik edo errekurtsorik aurkeztu zenik.

i) 2012ko apirilaren 2an NTN sozietate hornitzaileak erantzuna eman zion GFAk egindako errekerimenduari. Hala, hainbat dokumentu aurkeztu zituen, eta bere ustez, dokumentu horiek frogatzen zuten establezimendu iraunkorrak [Espainiako ordezkari-tza-bulegoak] esku hartu zuela BEZaren aplikazio-lurraldean egindako ondasun-emateetan, errekerimenduaren xede den epealdian, eta BEZA behar bezala jasanarazi zela. Erakunde hornitzaileak ahalorde eskritura interpretatzen duen moduan, ordezkari-tza-bulegoaren ordezkariak bere jarduerak zuzentzeko eta kudeatzeko ahalak zeuzkan, eta bezeroekin zuzeneko harremana zeukan, salmenten baldintzak negoziatzeko; Alemanian, berriz, administrazio-lan lagungarriak egin behar ziren, besterik ez. Errekerimenduari emandako erantzuna amaitzeko, zera esan zuen: Espainiako BEZaren aplikazio-lurraldean «batasunaren barruko ondasun eskuraketaren pareko eragiketa bat egiten zuen, abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuaren 16. artikulua arabera (...), eta eragiketa horren subjektu pasiboa da; geroago, Espainiako SAC SAU sozietateak ondasunak erabiltzen dituen barneko ondasun-ematea egingo litzateke».

j) Uztailaren 17ko 686/2012 Foru Aginduaren bidez –agindu hori hilaren 19an jakinarazi zen–, GFAk ZAEA inhihi zedila eskatu zuen, «NTN hornitzaileak SAC SARi bidegabeki jasanarazitako 2010eko ekitaldiko balio erantsiaren gaineko zergaren kuotei dagokien 136.485,26 €-ko zenbatekoa biltzeko eta kobratzeko eskumenari dagokionez».

k) 2012ko abuztuaren 20an ZAEAK GFARI jakinarazi zion inhihizio-errekerimendua ukatu zuela, bere ustez «NTN zergapekoak SAC SARi behar bezala jasanarazi dizkiolako, baita ZAEAN behar bezala sartu ere, BEZaren kuotak, egindako

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
29/2012	R3/2018	2018-4-9	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa. Ez-egoiliarra El-rik gabe.

batasunaren barruko eskuraketen pareko eragiketen ondoriozko barneko ondasun-emateei dagozkienak».

l) 2012ko irailaren 11n, GFAko Diputatuen Kontseiluak Arbitraje Batzordean gatazka planteatzea erabaki zuen, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailari jakinarazi ostean.

**3.-** Gatazkaren planteamenduan Foru Aldundiak dioenez, eskuduna da eztabaidagai diren eragiketei dagokien BEZa ordainarazteko, oinarri hartuta geroago azalduko diren egitateak eta ohar juridikoak nahiz Ekonomia Itunaren 27. artikuluan eta abenduaren 29ko 102/92 Foru Dekretuaren, Gipuzkoako Lurralde Historikoan BEZ arautzen duenaren 84. artikuluan xedatuta dagoena.

**4.-** 2015eko irailaren 30eko bileran, Arbitraje Batzordeak 28/2012 gatazka onartu zuen, eta 2015eko urriaren 7an ZAEAr jakinarazi zion onartu zuela, hilabeteko epea emanda alegazioak egiteko (Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 16.2 artikulua). Halaber, data berean agertzen da SAC SAr jakinarazi zitzaiola.

**5.-** 2015eko azaroaren 6an Zerga Administrazioko Estatu Agentziak alegazioak egin zituen, bere zuzendari nagusiaren idazki baten bidez. Idazki horretan zuzendari nagusiak ukatzen du Arbitraje Batzordeak eskumena duenik gatazka ebazteko, eta gatazka onar ez dadila eskatzen du, uste duelako xedea ez dagoela Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 3. artikulua esleitutako eskumenen barruan. Gaiaren funtsari dagokionez, ZAEAk, bere ustez, eskumena dauka 136.485,26€ horiek biltzeko eta kobratzeko, zeintzuk baitagozkie bere ustez NTN hornitzaileak SAC SAr batasunaren barruko eskuraketen pareko eragiketen ondoriozko barneko ondasun-emateetan behar bezala jasanarazitako 2010eko ekitaldiko BEZaren kuotei.

**6.-** Espedientea agerian jarri izana jakinarazi zen 2015eko abenduaren 11n. Jakinarazpen horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiak, epea luzatu ondoren, 2016ko urtarrilaren 21ean azken alegazioak aurkeztu zituen: gezurtatu egin zuen ZAEAk esandakoa, Arbitraje Batzordeak ustez eskumenik ez izateagatik onargarria ez zela, alegia, eta horrez gain gezurtatu egin zuen Estatuko Administrazioak erabiliko argudioa, gatazkaren mamiari buruzkoa; horrenbestez, bere planteamendu-idazkiko argudio eta uziak berretsi zituen.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
29/2012	R3/2018	2018-4-9	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa. Ez-egoiliarra El-rik gabe.

7.- Tramite horretan, ZAEAk espedientea ikusi zuen eta ez zuen azken alegaziorik egin.

8.- 2015eko abenduaren 10ean SAC SAri jakinarazi zitzaion espedientea azaldu zela; SAC SA bera agertu egin zen, jardueren berri izateko, eta ez zuen alegaziorik egin. Espedientean agertzen dira erakundeak GFAko Zeharkako Zergak Kudeatzeko Zerbitzuari 2013ko irailaren 12an eta 2015eko otsailaren 17an igorritako idazki batzuk, eta Euskal Autonomia Erkidegoko ZAEAREN Ordezkaritza Bereziari 2015eko irailaren 22an igorritako idazkia; horien bidez prozedura Arbitraje Batzordean tramitatu izanari buruzko informazioa eskatu zuen. Azken idazkian, zergapekoak dio gatazka ebazteko eskatu diola hainbat aldiz GFARI (2012, 2013, 2014 eta 2015ean), baita ZAEARI ere.

9.- Abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Arbitraje Batzordearen Erregelamenduan xedatutakoarekin bat etorritik tramitatu da prozedura.

## II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Zedarriketa negatiboarekin hasita, komenigarria da zera aurreratzea: 28/2012 gatazkaren xedea ez da BEZaren itzulketa, hain zuzen ere aurka dauden bi Administrazioei eskatu zaien eta biek ere ukatu dutena. Hala ere, gauza bat oso kontuan hartzekoa da: zergapekoarentzat, SAC SArentzat, hain zuzen ere, itzulketa dago jokoan, antza denez itzulketa horretarako eskubidea baitauka. Horren haritik, kenkaria eta, bidezkoa izanez gero, itzulketa, funtsezko atala da balio erantsiaren gaineko zergaren neutraltasuna lortzeko, kargapeko eragiketarako erabilitako ondasun eta zerbitzuen erosketan jasandako BEZa berreskuratzeko aukera ematen baitu.

Gatazka honetan eskatzen zaigu erabakia har dezagula, BEZa itzultzeari uko egiten dioten Administrazioetatik ea zeinek daukan eskumena Alemaniako NTN sozietatearen eta Espainiako SAC SA sozietatearen artean 2010eko ekitaldian egindako eragiketei dagokien zerga biltzeko, GFAREN, gatazkaren sustatzailearen ustez, Alemaniako hornitzaileak bidegabeki jasanarazi zituelako eta bidegabeki sartu zituelako ZAEAN.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
29/2012	R3/2018	2018-4-9	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa. Ez-egoiliarra El-rik gabe.

Hala ere ebazteko baldintza denez aldez aurretik ebazteko eskumena egiaztatzea (are gehiago kasu honetan, interesa duten Administrazioetako batek auzitan jartzen baitu), onartezintasunaren eragozpena ebatzi behar dugu, gatazkaren aurka jartzen den lehenengo eztabaidagaia den aldetik; eta eragozpen hori ordena publikoko auzia denez, ofizioz ere aztertu beharko litzateke.

**2.-** ZAEAk dioenez, gatazkaren xedea da zehaztea ea SAC SAK jasandako BEZaren kuotak behar bezala jasanarazi zizkion Alemaniako hornitzaileak (NTN), 2010eko ekitaldian egindako eragiketetan, «auzigaia ez da sartzen Arbitraje Batzordearen eskumenen artean, (...) aztergaia ez baita lotura-puntu bat, ez Ekonomia Itunaren interpretazioa eta aplikazioa, ezta zergadunen helbideratzea ere» (bigarren alegazioa).

Beste alde batetik, bere ustez, Foru Aldundiaren ustez Estatuko Administrazioan bidegabeki sartu diren BEZaren kuotak GFARI transferitzeko egindako eskaria betetzeko, aztertu beharko lirateke ZAEAk bere eskumenak baliatuz egindako administrazio-egintzak, zeinen bidez ezesten duen SAC SAK aurkeztutako eskaria, sarrera bidegabean itzulketari buruzkoa, baita berraztertze errekurtsoa ere; izan ere, Arbitraje Batzordea ez da berrikuspen-organoa. Eta zera ere dio, azken batean: gatazka onartu ez izanaren ondorioz, zergaduna ez litzateke babesik gabe egongo, eta zergadun horrek beti izango lituzke beste bide batzuk, auzigai diren administrazio-egintzen aurka administrazio-bidean edo jurisdikzio-bidean bere burua babesteko.

ZAEAk onarpenik ezaren aurkako eragozpenak azaldu zituen, eta GFA, bere azken alegazioetan, ez dator bat horrekin, eta ustez Arbitraje Batzordeak eskumenik ez izatearen aurkako argudio hauek ematen ditu:

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Estatuko Administrazioaren arteko gatazka bat dugu hizpide, zalantzarik gabe. Gatazka horren xedea da zehaztea ea zergadun bati behar bezala jasanarazi zitzaizkion bere hornitzailearekiko eragiketetan jasan zituen BEZaren kuotak; hori zehazteko, argitu behar da ea eragiketa horietan Espainiako establezimendu iraunkorren batek esku hartu zuen ala ez. Ez da gatazka abstraktua, baizik eta zehatza, eta zerga-arloko harreman indibidualei eragiten die: halako harremanak dira bi merkataritza-erakunderen eta BEZa ordainarazteko eskuduntzat jotzen diren bi zerga-administrazioen arteko harremanak.



<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
29/2012	R3/2018	2018-4-9	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa. Ez-egoiliarra El-rik gabe.

- Gatazka hau Ekonomia Itunaren aplikazioaren ondorio da. Itun horren arabera, bi erakunde bi Administrazioen mendean daude, eta administrazio horiek, interpretatzeko irizpide diferenteekin, BEZa ordainarazteko eskumena dutela aldeztu dute. Honako hau da frogatzen: Administrazio berberak bi erakundeei ordainarazteko eskumena izan balu, ez zen gatazkarik egongo; izan ere, orduan, irizpide bakarra aplikatu beharko lirateke: bi kasuetan administrazio eskuduna Gipuzkoako Foru Aldundia izan balitz, «Gipuzkoako Foru Aldundiak uste izan balu NTN-k egindako eragiketetan Espainiako lurraldean kokatutako establezimendu iraunkor batek esku hartu ez zuela, orduan SAC SArI itzuliko zitzaizkiokeen NTN-k sartutako BEZaren kuota».

Laburbilduta, Ekonomia Itunean egindako eskumen-banaketaren ondorioz «sortzen dira hizpide dugunaren antzeko egoerak. Egoera horietan zergapeko batek ezin du lortu jasandako BEZaren itzulketa, eta horrek eragina dauka (...) zerga horren neutraltasunean, eta beraz, horiek Arbitraje Batzordearen eskumenen barruan daude».

Arbitraje Batzordeak ustez ez dauka eskumenik ZAEAk BEZaren itzulketa ezesteko, erakundeak eskatutako itzulketa hori ezesteko egindako egintzak berrikusteko; horri dagokionez, GFAk zera argudiatzen du:

«Gatazkan (...) Foru Aldundi honek egindako eskariaren gaia ez da berrikuspena, honako hau baizik: Arbitraje Batzordeak zehaztea ea Foru Aldundi horrek eskumena daukan SAC SArI NTN hornitzaileak bidegabeki jasanarazitako balio erantsiaren gaineko zergaren kuoten zenbatekoa biltzeko eta kobratzeko. Hain zuzen ere (...), Arbitraje Batzordeak hori dioen ebazpena ematen badu, orduan aldi berean ZAEAk gai horretan ez du eskumenik izango, eta beraz, Administrazio horrek berrikusi beharko lituzke eskumenik gabe emandako administrazio-egintzak, eta ez Arbitraje Batzordeak (...), ordenamendu juridikoan xede horrekin aurreikusita dauden mekanismoak erabiliz»; hori funtsatzeko aipatzen du gure 6/2011 Ebazpena, otsailaren 21ekoa (44/2008 gatazka).

Horrez gain, Foru Aldundiak hauxe argudiatzen du: ZAEAk esandakoaren ondorioz, «Arbitraje Batzordeak ezin izango lituzke ebatzi Administrazioen artean planteatutako gatazka gehienak, zeinetan, jakina, ustez Ekonomia Ituna urratzen duten administrazio-egintzak egin baitira, hain zuzen ere Arbitraje Batzordera jotzeko arrazoi direnak».

Espedientea	Ebazpena		Eragindako administrazioak		Kontzeptua
29/2012	R3/2018	2018-4-9	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa. Ez-egoiliarra El-rik gabe.

Azkenik, ZAEAk alegatzen du gatazka onartu ez arren zergaduna ez litzatekeela babesik gabe geratuko, zergadunak defentsarako beste bide batzuk dauzkalako; horri buruz, Foru Aldundiak zera erantzuten du:

«Dagokigun gatazkan honako egoera hau dugu hondoan: zergadun batek, Administrazioen arteko interpretazio juridikoen diferentzia batengatik, jasanarazi zaion eta jasan duen BEZ baten itzulketa ezin du lortu, eta aldi berean, likidazio bat ordaindu behar du. Eta hori hala izanik, (...) gainera, ezin da esan zergadun horrek bere burua defendatu behar duenik bi Administrazioen aurrean (...); aitzitik, Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak esku hartu behar du eta planteatutako gatazka ebatzi behar du. Gogoan izan behar da, aztergai dugun kasuan, eraginpean dauden zergadunek beren zerga-betebeharrak bete dituztela, eta haiei eragin dieten administrazio-egintzak Administrazioen arteko desadostasun batetik sortu direla, eta horrenbestez, desadostasun hori argitzeko eskumena duen organoak esku hartu behar du kasu honetan».

3.- Onartezintasunari buruzko auzian gatazkan dauden Administrazioen jarrera laburbilduta azaldu ostean, gogora ekarri behar da Ekonomia Itunaren 66. artikuluan Arbitraje Batzordeari esleitzen zaizkion eginkizunak eksklusiboak eta baztertzailak direla, eta Zerga Administrazioek Arbitraje Batzordera jo behar dutela euren eskumengatazkek ebazteko (Auzitegi Gorenaren 2014ko azaroaren 17ko epaia, 831/2013 errekurtsua, 4. OJ; Auzitegi Gorenaren honako epai hauek aipatzen dira: 2008ko uztailaren 10ekoa, 2399/2006 errekurtsua, 7. OJ; eta 2012ko azaroaren 12koa, 2304/2011 errekurtsua). Hala ere, administrazio-bide berezi hori ez litzateke erabili behar zerga itunduen interpretazioari eta aplikazioari buruz sortzen diren desadostasun guztiak ebazteko; bereziki, administrazio-jardunak ukitutako zergapekoek, gatazka planteatu aurretik, administrazio-bidean eta jurisdikzio-bidean berrikusteko bide arruntetara joz konpondu ezin dituzten desadostasunak.

Bestalde, ez da bidezkoa gatazka abstraktuak piztea; beraz, esan behar da Zerga Administrazioen artean [«*Banako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan (...) sor litezkeen auziak*» (Ekonomia Itunaren 66.Bat.b) artikulua] sortzen diren gatazken eskumen izaera ezin dela berezi eskumenetan esku sartzea ekarri duten administrazio-jarduketatik, errealitate diferente edo aparteko bat balitz bezala; horrek, jakina, gatazka konpontzea eragozten du,

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
29/2012	R3/2018	2018-4-9	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa. Ez-egoiliarra El-rik gabe.

baldin eta lehenago gatazka sorrarazi duen administrazio-jarduera zehatza aztertu ez bada. Horregatik, eskumen-gatazka positiboetan beti egongo da zerga-harreman indibidualei dagokien administrazio-jarduketa bat, eta jarduketa hori aurretiaz Arbitraje Batzordeak baloratu beharko du, gatazka ebazteko besterik ez. Beste gauza bat da Administrazio horietako batek gatazka planteatzeko arbitraje-bide horretara jo baino lehen, interesa duten zergadunek beraiek erreakzionatzea, administrazio-bidean eta bide judizialean berrikusteko prozedura arrunten bitartez, eztabaidan ari diren Administrazio baten edo bestearen jarduketaren aurrean.

Azken hori ez da gertatu kasu honetan; beraz, zera ondorioztatu behar dugu: Gipuzkoako Foru Aldundiak Estatuko Administrazioan planteatutako gatazka, BEZa aplikatzearen ondorioz sortutako zerga-harremanei buruzko hori, Ekonomia Itunaren 66.Bat.b) artikulua bidez argitzen saiatzen bagara, Ekonomia Itunaren eskumen-banaketaren arabera, zuzen-zuzenean deklaratu behar da Arbitraje Batzorde honek eskumen eskusiboa duela gatazka aztertu eta ebazteko; beraz, ZAEAk bere eragozpenean azaltzen duen eskumengabetasuna ezetsi behar da, eta funtsean, GFAk horren kontra alegatutako arrazoiak aintzat hartu behar dira.

Gainerakoan, ondorio hori bat dator Auzitegi Gorenaren 2016ko urtarrilaren 26ko epaiak (916/2014 zenbakiko errekurtsioa, 4. OJ) dioenarekin; eta duela gutxiagokoa den martxoaren 23ko 509/2018 epaiarekin (68/2017 zenbakiko errekurtsioa); bi epai horiek ezetsi egin zituzten hurrenez hurren Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Estatuko Administrazioak Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen beste bi ebazpenen aurka aurkeztutako errekurtsioak.

**4.-** Horrez gain kontuan hartu behar da Estatuko Administrazioak adierazten duen alegazioa, gatazka ez onartzeak zergadunaren babesgabetasuna sorraraziko ez lukeela-eta (zergadunak beste babes-bide batzuk dauzkalako auzitan jarritako egintzen aurrean); eta horrekin lotuta, GFAk horren aurka duen jarrera; izan ere, GFAREN iritziz, Ekonomia Itunaren eskumen-banaketaren ondorioz «sortzen diren egoerek zergapekoari (...) eragozten diote jasandako BEZaren itzulketa lortzea (...)».

Jakina, esan denez, gatazka honen aztergaia ez da, zuzenean, BEZaren itzulketa, SAC SAK eskatu zuena eta bi Administrazioek «interpretazio juridikoaren diferentziarengatik» baztertu zutena, baizik eta zehaztea zein administrazioek duen eskumena auzigai diren eragiketetan sortutako BEZa ordainarazteko eta biltzeko. Hala

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
29/2012	R3/2018	2018-4-9	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa. Ez-egoiliarra El-rik gabe.

ere, zergapekoak eta, hemen garrantzitsua den alderdian, gatazka sustatzen duen Foru Aldundiak antza denez uste duenaren kontra, Arbitraje Batzordearen esku-hartzea beharrezkoa da administrazio arteko eztabaida ebazteko, baina ez BEZaren itzulketarako eskubidea baliatzeko, hori ezin baita inola ere arbitraje-prozeduraren ebazpenaren mendean jarri. Eta, arrazoi berberarengatik, baztertu behar da Ekonomia Itunaren eskumen-banaketarengatik zergapekoak «lortu ezin dezakeenik jasandako BEZaren itzulketa (...)».

Kontuan hartu behar da honako hau: batez ere eskubidearen titularrak, kasu honetan BEZaren kenkarirako eta itzulketarako eskubidearen titularrak, izan behar du interesa hori babesteko, ordenamendu juridikoan xede horrekin ezarrita dauden bideetatik. Hala ere, espedientean dagoen informazioarekin, orduan ez zuen hala egin SAC SAK. Hasteko, ez zuen alegaziorik aurkeztu GFAk 2011ko ekainaren 14an agindutako behin-behineko likidazioaren proposamenaren aurka, eta ekainaren 30ean presaka eskatu zion ZAEARI bidegabeko sarreraren itzulketa; hala, tramite hura oker tratatu zuen, GFAk BEZaren kenkaria ukatzeko eta jasanarazpena bidegabe deklaratzeko zuen likidazioa balitz bezala. Eta geroago, besterik gabe berraztertze errekurtsioa aurkeztu zuen ZAEAREN erabaki batzuen aurka. Erabaki horiek bai, eskatutako itzulketak ukatzekoak izan ziren, baina errekurtsio horiek ezesteko ebazpenen aurrean baretzea erabaki zuen, eta pasibotasun horrekin ebazpen horiek irrimo bihurtzea onartu zuen. Jakina, ez da arrazoizkoa zergadun bat behartzea «bere burua bi Administrazioen aurrean defendatzera, errekurtsioak aurkeztuz (...)», baina ez da arrazoizkoa, halaber, zergadunak benetan Administrazioen aurrean ez erreakzionatzea.

Hala ere, zergapekoak erabakitako defentsa-estrategiari buruz Arbitraje Batzorde honek, jakina, ez dauka ezer ere esateko. Estrategia hori gorabehera, kontua da BEZaren itzulketa jasotzeko eskubidea bete ahalko zela, gatazkan dauden Administrazioek Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 15.2 artikuluan eta, orain, Ekonomia Itunaren 66. Hiru artikuluan ere aginduta dagoenaren arabera jokatu izan balute, artikuluko horiek Europako araudiarekin eta haren printzipio gidariekin bat etorritik interpretatuta, kontuan hartuta «hainbat araubide eta horien behar bezalako kudeaketa eta funtzionamenduaz arduratzen diren hainbat administrazio daudenean, barneko araudiaren gainean egin beharreko interpretazioa, itzulketa gauzatzeko eskumena duen lurralde-administrazioaren koordinazioa eta zehaztapena arautzen dituen

Espedientea	Ebazpena		Eragindako administrazioak		Kontzeptua
29/2012	R3/2018	2018-4-9	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa. Ez-egoiliarra El-rik gabe.

neurrian, nahitaez bateragarria izan behar da Europar Batasuneko Antolamenduarekin, eta hala ez bada, ondoriozko izan behar da haren lehentasunarekin bateragarria ez den araua aplikatu ezin izatea (...)» (Auzitegi Gorenaren 2013ko urriaren 17ko epaia, 538/2012 errekurtsua, 3. OJ).

Hain zuzen ere, Ekonomia Ituna apirilaren 21eko 7/2014 Legearen bitartez aldatu zenetik, Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 15.2 artikuluko hasierako aurreikuspen hura Itunaren 66. artikuluko atal berri batean, Hirugarren apartatuan txertatu zen. Apartatu horrek dioenez, «*Eskumen-gatazka dagoenean, harik eta ebazten ez den arte, kasuan kasuko zergadunak zergapetzen aritu den administrazioak zergadunok bere eskumenaren pean edukitzen jarraituko du, alde batera utzita administrazioen artean egin behar diren tributu-arloko zuzenketa eta konpentsazioak. Horrelakoak Arbitraje Batzordearen erabakiaren arabera tributu-foru berria erabili behar den egunera eramango dira, bestalde*».

Beraz, antza denez, ez zegoen aitzakiarik BEZaren kenkarirako eta itzulketarako eskubidea baliatu zuen zergapekoa ordura arte kargapetzen zuen Administrazioak (kasu honetan, Gipuzkoako Foru Aldundia) kenkari eta itzulketa horren ardura hartzeko, eskumen-gatazka sortu eta gero, kalterik egin gabe arbitraje prozeduraren ebazpenaren ostean eraginpeko Administrazioen artean, egokia izanez gero, egin beharreko zuzenketa eta konpentsazioei. Are gehiago, ikusita Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren eta Auzitegi Gorenaren doktrina. Biak bat datoz; izan ere, onartzen dutenez, BEZaren itzulketarako eskubidea «ezin du baldintzatu, ezta kaltetu ere (...) estatu barneko araudiak daukan konplexutasunak, zerga kudeatzeko ardura duten administrazioen arteko harremanak bideratu eta koordinatzean agerian jartzen den konplexutasun horrek (...)» (2013ko urriaren 17ko epaia, 538/2012 zenbakiko errekurtsua, 3. OJ). Ildo beretik doaz Auzitegi Gorenaren 2013ko apirilaren 11ko epaia (17/2012 zenbakiko errekurtsua, 3. OJ) eta 2014ko martxoaren 31koa, (1547/2013 zenbakiko errekurtsua, 3. OJ).

**5.-** 28/2012 gatazkaren funtsean sartuta, kasu honetan Administrazioen arteko desadostasuna sortzen da SAC SArean eta haren Alemaniako hornitzaile NTN-ren artean 2008ko ekainaren 5ean sinatutako gordailutze-kontratuaren arabera egindako eragiketetan BEZa ordaintzeko araubidea modu diferentean interpretatzen eta aplikatzen delako; eragiketa horiek, kontratuaren II.4 klausularen arabera, Alemaniatik

Espedientea	Ebazpena		Eragindako administrazioak		Kontzeptua
29/2012	R3/2018	2018-4-9	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa. Ez-egoiliarra El-rik gabe.

ondasunak transferitzea eta bezeroaren, SAC SAREN biltegietan gordailutzea dira, baina ondasun horien jabetza eta xedatze-eskubidea ez da transferitzen, bezeroak ondasun horiek bere industria prozesurako (automoziorako piezak fabrikatzea) ateratzen ez dituen arte.

BEZA ordainarazteko eta biltzeko eskumena zein Administrazioak daukan erabakitzeke, aztertu behar da ea 2010eko ekitaldian Alemaniako hornitzaileak, kontratua betearaziz, behar bezala jasanarazi zituen Espainiako erakundeak eragiketetan jasandako BEZaren kuotak; hori zehazteko, kasu honetan, egiaztatu behar da ea SAC SARI egindako ondasun-emateetan Alemaniako hornitzailearen Espainiako establezimendu iraunkorrak (2004ko ekainaren 22an eraturako ordezkari-tza-bulegoa] esku hartu duen ala ez, BEZA arautzen duen 37/1992 Legearen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuaren 84. artikuluko Bi apartatuan xedatuta dagoenaren arabera.

**6.-** Gatazka ebazteko aplikatu beharreko araudia balio erantsiaren gaineko zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legearen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuaren 16.2, 69.Hiru eta 84. Bat 1. eta 2. a ) eta Bi artikuluetan agertzen da. Artikulu horiek honako hau ezartzen dute:

«16. artikulua. Batasunaren barneko ondasun eskuraketen pareko eragiketak.

Batasunaren barneko ondasun eskuraketen pareko eragiketa kostubidezkotzat hartuko dira:

(...) 2. Enpresaburu edo profesional batek zergaren aplikazio-lurraldean garatutako jarduketari enpresaburu edo profesional horrek berak banatu edo garraiatutako ondasunari dagokion zerga aplikatzea, baita enpresaburu edo profesional horrek berak bere kontura eta bere enpresa- nahiz lanbide-jardunean ondasuna beste estatu kide batean ekoiztu, erauzi, eraldatu, erosi edo inportatu badu ere».

«84. artikulua. Subjektu pasiboak

Bat. Zergaren subjektu pasiboak izango dira:

1. Enpresaburu edo profesionalak diren pertsona fisiko zein juridikoak, zergari lotutako ondasun-salmentak edo zerbitzu-prestazioak egiten dituztenean, ondorengo zenbakietan xedatutako kasuetan izan ezik.

Espedientea	Ebazpena		Eragindako administrazioak		Kontzeptua
29/2012	R3/2018	2018-4-9	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa. Ez-egoiliarra El-rik gabe.

2. Zergari lotutako eragiketen hartzaile diren enpresaburuak edo profesionalak, jarraian aipatzen diren kasuetan:

a) Eragiketa horiek zergaren aplikazio-lurraldean finkaturik ez dauden pertsona edo entitateek egiten dituztenean (...)

Bi. Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, subjektu pasiboak zergaren aplikazio-lurraldean finkatuta daudela joko da lurralde horretan beren jarduera ekonomikoaren egoitza, zerga-helbidea edo *establezimendu iraunkor bat dutenean, eta establezimendu iraunkor horrek zergari lotutako ondasun-salmentetan edo zerbitzu-prestazioetan esku hartzen duenean.*

*Establezimendu iraunkorrak ondasun-salmentetan edo zerbitzu-prestazioetan esku hartzen duela ulertzen da bere ekoizpen faktore materialak eta giza alorrekoak, edo horietako batzuk, antolatzen dituztenean salmenta edo prestazio horiek aurrera eramateko».*

Bestalde, gatazkan dauden Administrazioetako batek bere Betearazpen Erregelamenduari eman nahi dion garrantzia ikusita, Kontseiluaren 2006/112/EE Zuzentarauak, balio erantsiaren gaineko zergaren sistema erkideari buruzkoak, 192.bis artikuluan zera xedatzen du:

«Sekzio honen ondorioetarako, subjektu pasibo batek establezimendu iraunkorra badu zerga sortzen den estatu kideko lurraldean, ulertuko da subjektu hori ez dagoela kokatuta estatu kide horretako lurraldean, baldintza hauek betetzen direnean:

a) estatu kide horretako lurraldean zergapetutako ondasun-emate bat edo zerbitzu-prestazio bat egitea;

b) zerbitzu emaileak establezimenduren bat baldin badu estatu kide horretako lurraldean, establezimendu horrek eskurik ez hartzea ondasun-emate edo zerbitzu-prestazio horretan».

Kontseiluaren 2011ko martxoaren 15eko 282/2011 (EB) Betearazpen Erregelamenduak [«BEZaren sistema aplikatzean barneko merkatuaren helburuarekin bat etortzeko, merkatu horren funtzionamendu egokiarekin bateraezinak diren desadostasunak gertatzen diren kasuetan» (2. oinarria) eta «BEZaren gaur egungo sistemaren aplikazio uniformearen bermatzeko, horretarako 2006/112/EE Zuzentarauaren

Espedientea	Ebazpena		Eragindako administrazioak		Kontzeptua
29/2012	R3/2018	2018-4-9	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa. Ez-egoiliarra El-rik gabe.

*aplikazio-xedapenak ezarriz, bereziki subjektu pasiboari, ondasun-emateari eta zerbitzu-prestazioari eta zerga-egitateak egiteko lekuari dagokienez» (4. oinarria)], bere 53. artikuluan honako hau dio:*

«1. 2006/112/EE Zuzentarauaren 192.bis artikulua aplikatzeko kasu honetan *bakarrik hartuko da kontuan subjektu pasiboaren establezimendu iraunkorra: esku-hartzen duen ondasun-emateak edo zerbitzu-prestazioak burutzea ahalbidetuko dien giza baliabideak eta bitarteko teknikoak eratutako egitura egoki bat nahiko iraunkortasunez duenean.*

2. Subjektu pasibo batek establezimendu iraunkorra badu BEZa zor den estatu kideko lurraldean, *ulertuko da establezimendu horrek ez duela eskurik hartzen ondasun-ematean edo zerbitzu-prestazioan 2006/112/EE Zuzentarauaren 192.bis artikuluko b) letran jasotako zentzuan, non eta subjektu pasiboak ez dituen baliatzen establezimendu iraunkorraren baliabide tekniko eta pertsonalak zergapetutako ondasun-ematearekin edo zerbitzu-prestazioarekin datozen bestelako eragiketak estatu kide horretan egiteko, emate edo prestazio hori egin baino lehen edo egitearekin bat.*

Establezimendu iraunkorraren baliabideak administrazio lan osagarriak egiteko bakarrik erabiltzen badira –kontabilitatea eramateko, fakturatzeko eta kredituak kobratzeko–, ez da ulertuko baliabide horiek erabili direnik ondasun-emate baten edo zerbitzu-prestazio baten helburuetarako.

Hala ere, *faktura egiten bada establezimendu iraunkorraren estatu kideak BEZaren ondorioetarako emandako identifikazio zenbakiarekin, ulertuko da establezimendu horrek parte hartu duela estatu kide horretan egindako ondasun-ematean edo zerbitzu-prestazioan, salbu eta kontrakoa frogatzen bada».*

Hala ere, Erregelamenduaren Hitzaurreak berak dioenez, *«aplikatu beharreko xedapen horiek juridikoki lotesleak dira Erregelamendu hau indarrean jarri zen datatik, eta ez dute aurretiaz epaitzen legeriaren eta Estatu kideek lehenago egindako interpretazioaren balioa» (2. oinarria).*

**7.-** Ukitutako Administrazioek eta esku hartzen duten erakundeek ez dute auzitan jartzen Alemaniatik Espainiara egindako ondasun-hornidurako eragiketak, eta biek erkidego barruko eskuraketekin parekatutako eragiketatzat jotzen dituzte.



<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
29/2012	R3/2018	2018-4-9	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa. Ez-egoiliarra El-rik gabe.

Desadostasuna sortzen da eragiketa horiek norik egiten dituen zehaztu behar denean: GFAREN ustez NTN-k zuzenean egiten ditu; ZAEAREN ustez, berriz, NTN-k Espainiako establezimendu iraunkorraren bitartez egiten ditu.

Gatazka Foru Aldundiak formalizatzen du eta BEZAREN jasanarazpena bidezkoa denik ukatzen du; Estatuko Administrazioak, aldiz, jasanarazpena egintza irmo eta onartuetan baliozko eran egin dela uste du, baina Estatuko Administrazioak bere jarrera oinarritzen erabilitako egitatezko elementuak eta elementu juridikoak GFAK ezeztatu egin ditu bere azken alegazioetan. Horrenbestez, azalpenen ordena alderantziz jarri behar dugu, eta hasteko, ZAEAK aurkeztutako arrazoiak eta frogabideak aztertu behar ditugu; hain zuzen ere, ZAEA, gatazka sustatzen duen Foru Aldundia bezala, ez dago salbuetsita arbitraje prozedura honetan bere uziak frogatzetik, ebatzitakoa zergapekoarentzat alderdi administratiboan irmoa izan arren.

**8.-** Estatuko Administrazioak deklaritzen duenez, eztabaidagai diren BEZAREN kuotak behar bezala jasanarazi dira, eta egiaztatuta geratzen da Alemaniako hornitzaile NTN-ren Espainiako establezimendu iraunkorrak gordailutze-kontratua betearazte aldera egindako eragiketetan esku hartu zuela; BEZARI dagokionez, eragiketa horiek bi eragiketa diferente dira: batasunaren barruko ondasun eskuraketaren pareko eragiketa bat, Alemaniatik datozen salgaiak SAC SAREN biltegietan gordailutzen direnean; horren ostean barneko emate bat, bezeroak, SAC SAK salgaiak bere biltegietatik ateratzen dituen bere industria-prozesuari lotzeko; orduan, NTN barneko ematearen subjektu pasiboa da (Bosgarren alegazioa, 15/17 or.).

Eztabaidagai diren eragiketetan establezimendu iraunkorrak esku hartu zuela frogatzeko, ZAEAK honako egitate eta ohar juridiko hauek azaltzen ditu:

1.) NTN-k Madrilen 2004az geroztik establezimendu iraunkorra dauka, giza baliabide eta baliabide teknikoan aldetik egokia den egitura batekin, eta horri esker Espainian egindako ondasun-emateetan esku har dezake; Bulego Nagusiaren ahalak dauzkan pertsona bat dago ordezkari-bulegoa zuzentzeko eta kudeatzeko eta –erakunde hornitzaileak ZAEAREN informazio-eskariari erantzunez dioenez– hainbat jardura egiteko, besteak beste, «bezeroak bilatzea, salmentak hurbiltzea eta salmenta horien baldintzak negoziatzea, emateko datak artatzea eta, laburbilduta, Espainiako lurraldean egindako merkataritza-transakzio guztietan esku hartzea» (XI. eranskina).

Espedientea	Ebazpena		Eragindako administrazioak		Kontzeptua
29/2012	R3/2018	2018-4-9	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa. Ez-egoiliarra El-rik gabe.

2.) BEZaren legearen 69. Hiru artikuluen ondorioetarako onartzen da NTN-k establezimendu iraunkorra daukela zergaren aplikazio-lurraldean, eta esku-hartzaile guztiek ere onartzen dute ezen, ondasunak gordailutzeroa heltzen direnean SAC SAren biltegietara, erkidego barruko ondasun-eskuraketekin parekatutako eragiketak gertatzen direla (BEZaren legearen 16. 2. artikulua); horrenbestez, zehaztu behar da nor den subjektu pasiboa geroko barneko ematea egitean, hori gertatzen baita SAC SAK bere biltegietatik salgaiak ateratzen dituen bere industria-prozesuan sartzeko.

3.) Zergen Zuzendaritza Nagusiaren iritziz, 2011-09-06ko V1977-11 kontsulta loteslean, eragiketa batean establezimendu iraunkor batek noiz esku hartzen duen zehazteko kontuan hartu behar da Kontseiluaren (EB) 2011ko martxoaren 15eko 282/2011 Betearazpen Erregelamendua, zeinak Kontseiluaren 2006ko azaroaren 28ko 2006/112/EE Zuzentaraua (martxoaren 23ko EBAO) aplikatzeko xedapenak ezartzen baititu. Erregelamendu horren 53.2 artikulua xedatzen duenez:

*«2. Subjektu pasibo batek establezimendu iraunkorra bada BEZa zor den estatu kideko lurraldean, ulertuko da establezimendu horrek ez duela eskurik hartzen ondasun-ematean edo zerbitzu-prestazioan 2006/112/EE Zuzentaruaren 192.bis artikulua b) letran jasotako zentzuan, non eta subjektu pasiboak ez dituen baliatzen establezimendu iraunkorraren baliabide tekniko eta pertsonalak zergapetutako ondasun-ematearekin edo zerbitzu-prestazioarekin datozen bestelako eragiketak estatu kide horretan egiteko, emate edo prestazio hori egin baino lehen edo egitearekin bat.*

*(...) Hala ere, faktura egiten bada establezimendu iraunkorraren estatu kideak BEZaren ondorioetarako emandako identifikazio zenbakiarekin, ulertuko da establezimendu horrek parte hartu duela estatu kide horretan egindako ondasun-ematean edo zerbitzu-prestazioan, salbu eta kontrakoa frogatzen bada».*

NTN-k SAC SAri igorritako faktura guztietan Espainiako Zerga Administrazioak emandako IFZ-BEZA agertzen da; beraz, ulertzen da [aipatutako manuan jasota dagoen presuntzioa aplikatuta] NTN-ren establezimendu iraunkorrak SAC SAri fakturatutako eragiketetan esku hartu duela; ZAEAREN ustez, ondorio hori sendoa da, honako egitate hauek kontuan hartuta ere:

Espedientea	Ebazpena		Eragindako administrazioak		Kontzeptua
29/2012	R3/2018	2018-4-9	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa. Ez-egoiliarra El-rik gabe.

a) NTN-k SAC SArekin «Consignment Stock» edo gordailutze-stockeko kontratu bat sinatu zuen, eta Espainiako ordezkari-tza-bulegoak nortasun juridiko propiorik ez daukanez, Alemaniako NTN sozietateak sinatu zuen, baina horrek *per se* ez du esan nahi establezimendu iraunkorrak eragiketean esku hartzen ez duenik; horren haritik berriro aipatzen du V1977-11 kontsulta loteslea, 2011-09-06koa, zeinaren arabera «BEZaren Legearen 69. Bost. a) artikuluan aurreikusitako establezimendu iraunkorraren kasu zehatzaren barruan (...), ezarri gabeko enpresaburuaren agente edo ordezkariak ere sartu behar dira; beraiek ez dute merkataritza-kontratua sinatzen, baina ahalmena daukate negoziatzeko, eta hala egiten dute kontratuaren elementu eta xehetasun guztietan, kontratuaren sinaduran gauzatzen den negoziazio-prozesua zuzenduz eta burutuz, eta hala, ezarri gabeko enpresa behartuz».

ZAEAk dioenez, Madrileko establezimendu iraunkorraren ordezkariak ahalak dauzka ordezkari-tza-bulegoaren jarduerak zuzentzeko eta kudeatzeko, une bakoitzean Bulego Nagusiak ematen dizkion jarraibideen arabera. Gainera, Estatuko Administrazioak frogatu nahi duenez –horretarako erabiltzen du NTN-k emandako dokumentua, erakunde horri egindako errekerimenduaren erantzunarekin batera (XII. eranskina)–, Espainiako ordezkari-tza-bulegoaren ordezkariak zuzeneko harremana zeukan bezeroekin, baldintzak negoziatzeko eta, bereziki, salmenta-prezioa eta produktuen hornidurak negoziatzeko, proiektuak koordinatzeko, produktu berrien proposamen tekniko eta komertzialak egiteko eta eskaintzak egiteko.

b) SAC SArekin egindako eragiketetan Alemaniako bulego nagusiak egiten duen zuzeneko esku-hartzea administrazio-lan osagarriak egitea da, besteak beste kredituak kobratzea (ordainketak SAC SAK zuzenean Alemaniara egiten ditu, eta hamabost egunez behingo eskariak ere zuzenean faxez igortzen dira Alemaniara). ZAEAk dioenez, Alemaniako bulegoaren esku-hartze «administratibo» hori ez da eksklusiboa; izan ere, GFAk onartzen duenez, zergapekoaren esanetan, irekitako eskariak NTN-ren Madrilgo egoitzari egiten zitzaizkion. Eta Alemaniako egoitzaren jardura horrek ez dio indarririk kentzen aipatu den presuntzioari, arrazoi bikoitz batengatik; hona hemen arrazoi hori :

Espedientea	Ebazpena		Eragindako administrazioak		Kontzeptua
29/2012	R3/2018	2018-4-9	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa. Ez-egoiliarra EI-rik gabe.

- Alde batetik, 282/2011 (EB) Betearazpen Erregelamenduaren 53.2 artikulua ezartzen duenez, «*establezimendu iraunkorraren baliabideak administrazio lan osagarriak egiteko bakarrik erabiltzen badira –kontabilitatea eramateko, fakturatzeko eta kredituak kobratzeko–, ez da ulertuko baliabide horiek erabili direnik ondasun-emate baten edo zerbitzu-prestazio baten helburuetarako»; beraz, *a sensu contrario*, agerikoa denez, Alemaniako bulego nagusiak administrazio-lan osagarri horiek egin arren, ezin da esan bulego nagusiaren baliabideak ondasun-emate baten edo zerbitzu-prestazio baten helburuetarako erabili direnik, eta Madrilgo establezimendu iraunkorrak egin behar ditu SAC SArri ondasunak ematean esku hartzearekin zerikusia duten jarduerak.*
- Eta bestetik, Zergen Zuzendaritza Nagusiak 2011-09-06ko V1977-11 kontsulta loteslean darabilen irizpideari jarraituz, ondasun-ematean ordezkari-tzabulegoak esku hartu duen ala ez zehazte aldera garrantzia duena zera da: ordezkariak, azkenean kontratua bera sinatu gabe, ahalmena izatea kontratu horren elementu eta xehetasun guztiak negoziatzeko, eta hala, ezarri gabeko enpresa behartzea.

Espedientean dagoen dokumentazioa ikusita, ZAEAREN ustez, egiaztatuta geratzen da establezimendu iraunkorrak esku hartu duela, eta ondorio gisa dioenez, ezarritako subjektu batek egindako eragiketak izanik, SAC SAK bere biltegietatik salgaiak ateratzen dituen bere industria-prozesuan sartzeko, barneko ondasun-ematea gertatzen da, eta NTN ondasun-emate horren subjektu pasiboa da.

**9.-** Gipuzkoako Foru Aldundiak ez du erabat auzitan jartzen zergaren aplikazio-lurraldean NTN-ren establezimendu iraunkor bat dagoenik (Madrilgo bulego nagusiaren ordezkaria); «Administrazio honek ezeztatu egiten du ordezkari horrek gatazkaren xede diren eragiketetan esku hartu duenik» (Zuzenbideko Oinarria, II, Laugarrena); beraz, dioenez, eragiketa horiek erakunde ezarri gabe batek egin zituen, SAC SAK egindako erkidego barruko eskuraketa eragiketa bakar baten moduan tributatu behar zuten, eta beraz, bidezkoa da subjektu pasiboaren inbertsioa, baita sortutako BEZa Foru Ogasunean sartzea ere, Ekonomia Itunaren 27.Bat, Hirugarrena eta Laugarrena artikuluan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan Balio Erantsiaren gaineko Zerga arautzen duen 102/1992 Foru Dekretuaren 84.Bat 1. eta 2. a) artikuluan xedatuta dagoena aplikatuta.

Espedientea	Ebazpena		Eragindako administrazioak		Kontzeptua
29/2012	R3/2018	2018-4-9	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa. Ez-egoiliarra El-rik gabe.

GFAk bere ondorioaren oinarrian honako datu, egitate-arloko inguruabar eta argudio hauek jartzen ditu, ZAEAk emandako argudioak ezeztatzen dituztenak:

1) Hasteko, ukatu egiten du Kontseiluaren EB/2011ko martxoaren 15eko 282/2011 Betearazpen Erregelamenduaren 53.2 artikuluko presuntzioa aplikatu behar denik (artikulu hori oinarri hartuta, ZAEAREN eta Alemaniako hornitzailearen ustez, establezimendu iraunkorrak ondasun-emateetan esku hartu zuen), nahiz eta fakturak Espainian establezimendu iraunkorrari esleitutako BEZaren identifikazio zenbakiarekin egin. Hala ere, GFAk ukatu egiten du Erregelamenduan aurreikusitako presuntzioa 2010eko ekitaldian egindako eragiketa batzuei aplikatzea; izan ere, Erregelamendu hori, bere 65. artikulua araber, 2011ko martxoaren 23an EBAOn argitaratu eta hurrengo hogeit eguneko epearen buruan jarri zen indarrean. Eta hain zuzen ere, Erregelamenduaren Hitzaurreak berak argitzen duenez, *«aplikatu beharreko xedapen horiek juridikoki lotesleak dira Erregelamendu hau indarrean jarri zen datatik, eta ez dute aurretiaz epaitzen legeriaren eta Estatu kideek lehenago egindako interpretazioaren balioa»* (2. oinarria).

Hala ere, Foru Aldundiak dioenez, presuntzio hori gatazkaren xede diren eragiketei aplikatuko balitzaie ere, presuntzio hori suntsituta geratuko litzateke arrazoi hauengatik:

a) NTN-ren Espainiako ordezkari-bulegoaren legezko ordezkariak, LMV jaunak dauzkan ahalmenak (horien zerrenda agertzen da eratze-eskriburari erantsita), baliagarri zaizkio bulegoaren jarduerak zuzentzeko eta kudeatzeko, baina ez dauka ahalmenik merkataritza-eragiketetan edo bezeroekiko harremanak dakartzaten eragiketetan esku hartzeko; gehienbat *«administrazio-arloko edo barne-kudeaketako ahalmenak»* dira (langileen kudeaketa eta Administrazioekiko harremanen kudeaketa) eta merkataritza-jarduerarako lan osagarriak (fakturazioa, banku-kontuen irekiera...); nolana ere, merkataritza-jarduera bulego nagusian egiten da. Soil-soilik orientazio gisa, kontuan hartuta zein datatan jarri zen indarrean, GFAk zera azaltzen du: Betearazpen Erregelamenduaren 53.2 artikulua araber, *«establezimendu iraunkorren baliabideak administrazio lan osagarriak egiteko bakarrik erabiltzen badira – kontabilitatea eramateko, fakturatzeko eta kredituak kobratzeko–, ez da ulertuko baliabide horiek erabili direnik ondasun-emate baten edo zerbitzu-prestazio baten*

Espedientea	Ebazpena		Eragindako administrazioak		Kontzeptua
29/2012	R3/2018	2018-4-9	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa. Ez-egoiliarra El-rik gabe.

*helburuetarako».*

b) Espainiako bulegoaren ordezkariaren ahalmenak merkataritza-jarduerari ez dagozkiola eta, beraz, ordezkari hark gatazkaren xede diren eragiketetan esku hartu ez zuela berresteko, Foru Aldundiak honako datu hauek ematen ditu:

- Gordailutze-kontratua (15. dokumentua). Hornitzailearen eta bezeroaren arteko merkataritza-harremanak ezartzen dituen kontratu hori 2008an bulego nagusiarekin sinatu zen, eta ez establezimendu iraunkorraren ordezkariarekin. GFAk dioenez, Estatuko Administrazioak Zergen Zuzendaritza Nagusiaren 2011-09-6ko erantzuna (1977-11 kontsulta loteslea) aipatzen du. Erantzun horrek dioenez: «...erakunde kontsultagilearen ordezkariak berak merkataritza-kontratua sinatzen ez duenean, ordezkariak kontratuko elementu eta xehetasun guztiak negoziatzeko ahalmena badauka, eta hala egiten badu, kontratua sinatzean amaitzen den negoziazio-prozesua zuzenduz eta burutuz, eta hala enpresa ezarri gabea behartuz, orduan ondorioztatu beharko da erakunde kontsultagileak zergaren aplikazio-lurraldean establezimendu iraunkorra daukala...». Hala ere, ZAEAk ez du inolako ahaleginik egiten frogatzeko hornitzailearen Espainiako bulegoaren ordezkariak gatazkaren xede diren eragiketetan negoziazio-lanak egin dituela, zeinak nahitaezkoak baitira eragiketa horietan esku hartu duela ulertzeko (ez da ahaztu behar –berresten du GFAk– 2010eko ekitaldian egindako eragiketetan ezin zela aplikatu Kontseiluaren Betearazpen Erregelamenduaren 53.2 artikuluko presuntzioa, eta horrenbestez, beharrezkoa zela eragiketa horietan establezimendu iraunkorrak esku hartu zuela).

- SAC SAK eskuratzen duen materialaren prezioak Erkrath zentralak ezartzen eta aldatzen ditu (Mettmann hirian dago, Iparraldeko Renania-Westfalia, Dusseldorfetik hurbil).

- Jasotako azken albaranak eta hurrengo beharizanak azaltzeko programak Alemaniako fax-zenbaki batera bidaltzen dira, (...), eta harremanetarako pertsona identifikatzen da.

- Bidalketen jarraipena Alemaniako posta elektronikoko helbide batekin egiten da, honako xehetasun honekin (...) (16. dokumentua) eta honako helbide elektronikoa honetan ere bai (...) (17. dokumentua).

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
29/2012	R3/2018	2018-4-9	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa. Ez-egoiliarra El-rik gabe.

- Ordainketak zuzenean egiten zaizkio hornitzaileari Alemanian (18. dok.) eta Alemaniako kontu-zenbaki batean ere, zehazki (...) (16. dok.).

- TRW SL enpresak egindako ziurtagiria [GFAREN planteamendu-idazkian (19. dokumentua) nahiz ZAEAREN alegazioetan agertzen da (XII. eranskina)], NTN-k errekerimenduari emandako erantzunarekin batera aurkeztu zuen. Ziurtagiri horretan agertzen da LMV jaunak esku hartu zuela merkataritza-jardueraren xede diren salgaiak eskuratzeko negoziazioetan. Bada, ziurtagiri horri dagokionez, GFAk dioenez, lege-ondorioetarako fotokopia baten pareko balioa emateaz gain, kasu horretan ez dauka inolako ondorio juridikorik, informazio eskasa ematen duelako: ez dauka datarik, ez da denboraldi jakin bati buruzkoa, eta azken batean, berarekin batera dokumentu batek ere ez du egiaztatzen bere esanetan ordezkatzeko duen konpainiako erosketa- eta finantza-arduradunaren ordezkartzaren legitimotasuna. Nolanahi ere, ordezkari horrek beste bezero batzuekin egindako merkataritza-transakzioetan «esku hartu» izanak ez du esan nahi gatazka honen funtsean dauden transakzioetan esku hartu duenik; horrez gain, bezeroak berak ukatu egiten du esku hartu duenik, eta orobat hutsala da gatazka honi dagokionez.

2) GFAk zera dio: Administrazio honek hainbat dokumentu aurkeztu egin ditu frogagisa, alegia, jatorrizko enpresak sinatutako gordailutze-kontratua (15. dokumentua), zentralak ezartzen dituen prezioen zerrenda (9. dokumentua), Alemanian fax bidez zentralari egindako eskariak, erabiltzen diren Alemaniako posta elektronikoko helbideak (16. eta 17. dokumentuak) eta Alemaniako jatorrizko enpresari zuzenean egindako ordainketak (18. dokumentua), zeinak herri horretan irekitako banku-kontu batean egiten diren (16. dokumentua), bai eta zergapekoak, SAC SAk esandakoak ere. Froga-zama horren aldean, hornitzaileak egindako alegazioetan eta ZAEAREN beraren alegazioetan ez da froga bat ere aurkezten.

3) Hori guztia oinarri hartuta, Foru Aldundiaren ustez «egiaztatuta geratzen da ordezkartzita-bulegoak ez duela esku hartu (...) gatazkaren xede diren eragiketetan; beraz, BEZAREN araudian aurreikusita dagoenaren arabera eragiketa horiek zergaren aplikazio-lurraldean ezarri gabeko erakunde batek egin ditu. Beraz (...), bidezkoa da 102/1992 Foru Dekretuaren 84. Bat.2.a) artikuluan aurreikusitako subjektu pasiboaren inbertsioa, eta dagokion BEZa (...) Administrazio honetan sartu behar da,

Espedientea	Ebazpena		Eragindako administrazioak		Kontzeptua
29/2012	R3/2018	2018-4-9	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa. Ez-egoiliarra El-rik gabe.

Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Ekonomia Itunaren 27. artikuluan ezarrita dagoenaren arabera».

**9.-** Zergapekoak, SAC SAK, Estatuko Administrazioari igorritako idazkietan Foru Aldundiaren jarrera berbera hartzen du eta ukatzen du gatazkaren xede diren eragiketetan establezimendu iraunkor batek esku hartu duenik; Foru Administrazioarekin ados jarrita, bere ustez, bere Alemaniako hornitzaileak egindako barneko emateetan bidezkoa izan behar zuen 102/1992 Foru Dekretuaren 84. Bat.2.a) artikuluan aurreikusitako subjektu pasiboaren inbertsioak.

NTN-k, aldiz, ZAEAk itzulketa-eskariak ezesteko erabakietan hartutako jarrera berbera hartzen du, eta bere ustez egiaztatuta geratzen da bere establezimendu iraunkorrak esku hartu zuela gatazkaren xede diren transakzioetan.

**10.-** Kasu honetan, eragiketetan esku hartu zutenek eta, behintzat ez bete-betean gatazkan dauden Administrazioek, ez dute auzitan jartzen NTN-ren establezimendu iraunkor bat dagoenik zergaren aplikazio-lurraldean, BEZaren Legearen 69. Hiru artikuluan ezarrita dagoenaren ondorioetarako. Horregatik, eztabaidaren gunea, eta eztabaidagai diren eragiketen tributazio-araubideari buruzko desadostasun bakarra egitatezko auzi bat da, eta arrazoi berberarengatik, froga-izaerako auzi bat: zehaztea ea, Alemaniako NTN hornitzaileak Espainian 2004az geroztik daukan establezimendu iraunkorrak (Madrilgo Erkidegoko ordezkari-tza-bulegoa) benetan esku hartu al zuen 2010eko ekitaldian Espainiako SAC SA erakundearekin, 2008ko ekainaren 5ean sinatutako gordailutze-kontratua betearazte aldera.

Espainiako ordezkari-tza-bulegoa kudeatzeko eta zuzentzeko NTN-k ahalordetutako pertsonak eragiketa horietan benetan esku hartu zuen ala ez argitzeko, kontuan hartu behar dugu 37/1992 Legearen eta BEZari buruzko 102/1992 Gipuzkoako Foru Dekretuaren 84.Bi artikuluko azken paragrafoak ematen duen orientazio-irizpidea: *«Establezimendu iraunkorrak ondasun-salmentetan edo zerbitzu-prestazioetan esku hartzen duela ulertzen da bere ekoizpen faktore materialak eta giza alorrekoak, edo horietako batzuk, antolatzen dituenen salmenta edo prestazio horiek aurrera eramateko»*; antza denez, arrazoizkoa da uste izatea ezen ZAEAk egiaztatu beharko lukeela, frogaren erraztasunarengatik, egitate positiboa den aldetik, Alemaniako hornitzailearen establezimendu iraunkorrak SAC SArri egindako ondasun-emateetan esku hartu zuela, aipatu den gordailutze-kontratua betetze aldera.



Espedientea	Ebazpena		Eragindako administrazioak		Kontzeptua
29/2012	R3/2018	2018-4-9	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa. Ez-egoiliarra El-rik gabe.

Hala ere, ZAEAk, besterik gabe, egindako eragiketek BEZaren ondorioetarako daukaten kalifikazio juridikoari aplikatu beharreko araudia agerrarazten du, eta jarraian, egiaztatutzat jotzen du NTN-k 2004az geroztik Madrilen «establezimendu iraunkorra daukala, giza baliabide eta baliabide teknikoen aldetik egokia den egitura batekin, eta horri esker Espainian egindako ondasun-emateetan esku har dezakeela» (laugarren alegazioa). Geroago (bosgarren alegazioa) bere ondorioa berresten du, Zergen Zuzendaritza Nagusiak Kontseiluaren 2011ko martxoaren 15eko 282/2011 (EB) Betearazpen Erregelamenduko *ius tantom* presuntzioan oinarrituta emandako erantzun batean babestuta. Erantzun hori, indarrean jarri zen data kontuan hartuta, argi eta garbi ezin da aplikatu kasu honetan; gatazkarekin zerikusirik ez duen hirugarren erakunde batek esandakoa (XII. eranskina) ere oinarri hartzen du, baina horrek ez dauka garrantzirik, ezta formaltasun nahikorik ere, frogatzat jotzeko, nahiz eta Estatuko Administrazioak halakotzat jotzen duen. Eta hala eta guztiz ere –eta era berean esanguratsua da– ez ditu ezeztatzen, ezta aurkaratzen ere, GFAk egitate negatibo bat, hau da, prozeduraren xede diren eragiketetan establezimendu iraunkor batek esku hartu ez zuela, frogatzeko ahaleginean ekarritako datuak.

Honaino esan dena kontuan hartuta, kasuko egitateen inguruabarrak nahiz espedienteko dokumentazioa eta espedientean agertzen den informazioa nahiz espedientetik eratortzen dena, bai eta, jakina, bi Administrazioek aurkeztutako alegazioak eta frogabideak multzoan baloratuta, Arbitraje Batzorde honek honako hau ondorioztatzen du: ez dago froga-elementurik, auzigai diren eragiketetan Alemaniako NTN hornitzailearen Espainiako establezimendu iraunkor batek BEZaren xederako esku hartu zuela egiaztatutzat jo daitekeela erakusten duenik; beraz, nagusitu behar da subjektu pasiboaren inbertsioa, 102/1992 Foru Dekretuaren 84. Bat.2.a) artikuluan aurreikusita dagoena; horrenbestez, gatazka sustatu duen Foru Aldundiak dauka eskumena SAC Saren eta haren Alemaniako hornitzailearen, NTN-ren artean 2010eko ekitaldian egindako eragiketetan sortu zen BEZa ordainarazteko eta biltzeko, Ekonomia Itunaren 27.Bat, Hirugarrena eta Laugarrena artikuluan eta 102/1992 Foru Dekretuaren, Gipuzkoako Lurralde Historikoan Balio Erantsiaren gaineko Zerga arautzen duenaren 84.Bat 1. eta 2. a) artikuluan xedatuta dagoena aplikatuta.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

#### ERABAKI DU:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
29/2012	R3/2018	2018-4-9	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	2010eko BEZaren ordainarazpenaren eskumena duen Administrazioa. Ez-egoiliarra El-rik gabe.

**1.-** Deklaratzea Gipuzkoako Foru Aldundiak eskumena daukala SAC SARI NTN hornitzaileak 2010eko ekitaldian jasanarazitako eta ZAEAn sartutako balio erantsiaren gaineko zergaren kuotak ordainarazteko eta biltzeko.

**2.-** Erabaki hau Gipuzkoako Foru Aldundiari, Zerga Administrazioko Estatu Agentziari eta gatazkak ukitutako erakundeari jakinaraztea.